

# BEZEROEKIKO HARREMANA

Bezero berriak erakartzeko eta gure zerbitzuak ezagutzeko jaietan bertan panfletoak emango ditugu, horretarako gutako norbait egongo da jaietan panfletoak banatzen eta beste batzuk udaletxetara bidaliko ditugu. Erakutsi behar dugu eskaintzen ditugun zerbitzuak garbiak eta seguruak direla, horrek jendea erakarriko du.



Bestelako komunikazio eta publizitate teknikak ere erabiliko dira, hala nola iragarkiak jai egitarauetan, eta sare sozialetan agertzea marketin digital estrategien bidez.



Bezeroak mantentzea erraza izango da zeren eta ez dira honelako beste enpresa batzuk existitzen gure herrialdean. Gainera jaietan honelako zerbitzuak beharrezkoak dira. Jendea gure zerbitzuak frogatu eta gero beste jaietara joatean direnean gure zerbitzuak eskatuko dituzte beraien bizitza erraztuko dugulako era seguru batean.

Eskaria bultzatu eta errepikatzeko estrategiak aurrera eramango ditugu; horren adibide bezala, zonaldeko txosnekin akordioak egin eta elkarlanean arituko gara, txosna horretan erosiz gero kupoi bat emango die gure enpresan erabiltzeko eta gure enpresako zerbitzuak erabiliz gero txosna horretan gastatzeko kupoia emango diegu.

